

# Valderejo Parke Naturalean zehar XXII. ibilaldia

**URRIAK 26 IGANDEA**




## IBILBIDE FAMILIARRA



Ibilbide hau haurrak dituzten familientzako pentsatuta dago, 10,4 kilometroko distantzia eta 418 metroko desnibel positiboa dauka.

Valderejoko parketxean, Lalastrako herrian, hasiko da 10:30etan eta 6,6 kilometroan hornidura-gune solidoa egongo da. Gainera, ginkana moduko jolas bat ere eskeiniko da (adina: 14 urte arte).





# IBILALDIAREN EGUNERAKO ARGIBIDEAK



1

## Partaideen harrera

Ibilaldiko partaideak parketxetik pasa beharko dira dortsal zenbakia hartzeko, ibilbidearen hasiera baino 20 minutu lehenago (10:10).

2

## Ibilaldiaren hasiera

Ibilaldi familiarra 10:30etan aterako da ezarritako hasiera-puntutik, guztiok batera irtengo gara. Irteera ibilaldiko antolatzaile batek adieraziko du.



3

## Hornidura gunea


Hornidura gunean dortsal zenbakia aurkeztu beharko da. Lekuko ostalariek egindako patata tortilla, txokolate, fruta eta urak (komenigarria da baso edo botila berrerabilgarria ekartzea hondakinak ez sortzeko) osatuko dute.



4

## Ibilaldi amaiera

Ibilaldiaren amaiera hasiera-puntuaren berdina izango da. Parketxetik igaro beharko zara, opari polit bat itxaroten zaitu eta! sortea baldin baduzu, dortsal zenbakiarekin zozkatuko den saria ere eskura dezakezu.



# ARAUAK

1

Ibilaldia Parke Natural batean zehar igarotzen da, beraz, errespetatu beharko duzu parkeko araudia:  
<https://valderejoparkea.eus/eu/araudia>



2

Momentu guztietan eta salbuespenik gabe antolatzaileek zein laguntzaileek emandako aginduak jarraitu beharko dira.



Jarraian ezarritako kontrol denborak bete beharko dira:

Familiarra:

3


- Parketxe: 10:30
- Campa Portilla: 11:30
- Ribera: 13:30
- Final: 16:00



Ekitaldiak Gurutze Gorriaren eta Gaubeako Babes Zibilaren babesa izango du. Ibilaldiaren azkenengo pertsona antolatzailetako bat izango da denbora guztian segurtasun neurriak, araudia eta denbora maximoak betetzen direla bermatzeko.


4

Bai ingurugiroari (flora, fauna, paisaia edo edozein baliabide naturalari) baita antolatzaile, laguntzailei edo partaidei zuzendutako edozein errespetu falta guztiz gaitzetsia izango da.



5

Antolatzaileak ez dira ibilaldian zehar gertatutako istripuen arduradunak izango. Antolatzaileek aldatu ditzakete ibilbideak partaideen segurtasuna bermatzeko.



6

Aurretik aipatutako arauen ez betetzeak ekitalditik kanporatze zuzena adieraziko du.

